

**Ebazpena: R 142/2022**

**Espedientea: 25/2020**

Gasteizen, 2022ko azaroaren 22an.

Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Itunean aurreikusitako Arbitraje Batzordea osatzen duten Violeta Ruiz Almendral presidenteak eta Sofía Arana Landín eta Javier Muguruza Arrese batzordekideek erabaki hau hartu dute:

### **ERABAKIA:**

Bizkaiko Foru Aldundiak (aurrerantzean BFA) Zerga Administrazioeko Estatu Agentziaren (aurrerantzean ZAEA) aurrean aurkeztutako gatazkaren inguruan, zeinaren helburua baita 2017 eta 2018ko ikerketa, garapen eta berrikuntza teknologikoko (aurrerantzean I+G+B) jarduerak direla-eta itzulketak egiteko eskumena zehaztea, CILSaren eskariz. Gatazka hori 25/2020 espedientezenbakiarekin izapidetzen ari da Arbitraje Batzorde honetan.

### **I. AURREKARIAK**

1.- Zergapekoak aipatutako urtean ordaindu zituen zergak, eragiketen bolumenaren proportzioan, estatuko araudiaren arabera.

2.- Horren arabera, BFAn aurkeztutako autolikidazioan, I+G+B monetizatzeke eragiketen bolumenaren proportzioari dagokion itzulketa eskatu zuen.

3.- Aipatutako itzulketa egiteko eskumenari dagokionez BFAk estatuaren alde inhibitzeko eskatu ondoren, eta estatuak eskumenik ez zuela berretsi ondoren, gatazka aurkeztu zen Arbitraje Batzordean.

4.- Alderdiek beren jarrerak berretsi dituzte hasierako eta amaierako alegazio-idazkietan, eta gatazka ebazteko prest geratu da.

## II. ZUZENBIDEKO OINARRIAK

### 1.- Arbitraje Batzordearen eskumena

Ekonomia Ituneko 66.Bat artikulua ezartzen du Arbitraje Batzordearen eginkizunak hauek direla:

*a) Estatuko Administrazioaren eta foru-aldundien artean edo foru-aldundien eta beste autonomia-erkidegoetako administrazioen artean sortzen diren gatazkak ebaztea, bai tributu itunduen lotuneen aplikazioari dagokionez, bai administrazio bakoitzari zenbateko zatia dagokion zehazteko, sozietateen gaineko zergaren edota balio erantsiaren gaineko zergaren baterako tributazioaren kasuetan.*

*b) Banakako tributu-harremanetako arazo zehatzetan ekonomia-itun hau interpretatzeko eta aplikatzeko orduan administrazio interesdunen artean sor litezkeen gatazkak erabakitzea.*

*c) Zergadunen egoitza dela-eta sor litezkeen desadostasunak ebaztea.*

Kasu honetan, ebatzi behar da I+G+B kenkariaren monetizazioari dagokionez BFari tributazio-proporzio bat dagokion, eta horrek, era berean, berekin dakar interpretatzea Ekonomia Itunaren arabera itzulketa hori itunduta dagoen ala ez.

## 2.- I+G+B kenkariaren monetizazioa arautzea

Sozietateen gaineko Zergaren Legearen testu bategina onesten duen martxoaren 5eko 4/2004 Legegintzako Errege Dekretuak 44.2 artikuluan, *ratione temporis* gatazkari aplikatu dakiokeenean, honako hau dio:

*2. Hala ere, karga-tasa orokorra, ehuneko 35eko tasa edo Lege honen 114. artikuluan aurreikusitako karga-eskala aplikatu beharreko entitateen kasuan, Lege honen 35. artikuluko 1. eta 2. apartatuetan aipatutako ikerketa- eta garapen-jardueren eta berrikuntza teknologikoaren ondoriozko kenkariak, 2013ko urtarrilaren 1etik aurrera hasitako zergaldietan sortzen direnak, aurreko apartatuko azken paragrafoan ezarritako mugatik kanpo geratu ahal izango dira, aukeran, eta haien zenbatekoaren ehuneko 20ko deskontuarekin aplikatu ahal izango dira, apartatu honetan ezarritako moduan.*

*Kuota nahikoa ez bada, Zerga Administrazioari hura ordaintzeko eskatu ahal izango zaio zerga honen aitortpenaren bitartez, hurrengo a) letran aipatutako epea amaitu ondoren. Ordainketa horrek Tributuen abenduaren 17ko 58/2003 Lege Orokorraren 31. artikuluan eta hura garatzeko araudian xedatutakoari jarraituko dio, eta ez da inolaz ere 2. apartatuan aipatzen den berandutze-interesaren sortzapenik gertatuko.*

*Apartatu honetan xedatutakoaren arabera aplikatutako edo ordaindutako kenkariaren zenbatekoak, berrikuntza teknologikoko jardueren kasuan, ezin izango du batera milioi 1 euroko zenbatekoa gainditu urtean. Halaber,*

*apartatu honetan xedatutakoaren arabera, ikerketa eta garapeneko eta berrikuntza teknologikoko jarduerengatik aplikatutako edo ordaindutako kenkariaren zenbatekoak ezin izango du batera, eta kontzeptu guztiengatik, 3 milioi euroko zenbatekoa gainditu urtean. Bi muga horiek sozietate-talde osoari aplikatuko zaizkio, talde bereko entitateen kasuan, Merkataritza Kodearen 42. artikuluan ezarritako irizpideen arabera.*

*Apartatu honetan xedatutakoa aplikatzeko, baldintza hauek bete beharko dira:*

*a) Gutxienez urtebete igarotzea kenkaria sortu zen zergaldia amaitu zenetik, kenkaria aplikatu gabe.*

*b) Batez besteko plantilla edo, bestela, ikerketa eta garapeneko eta berrikuntza teknologikoko jardueri atxikitako batez besteko plantilla ez murriztea kenkaria sortu zen zergaldiaren amaieratik hurrengo c) letran aipatzen den epea amaitu arte.*

*c) Aplikatu edo ordaindutako kenkariaren zenbateko baliokidea erabiltzea ikerketa eta garapen eta berrikuntza teknologikoko gastuetarako edo jarduera horiei bakarrik atxikitako ibilgetu material edo aktibo ukiezineko elementuetan inbertsioak egiteko, higiezinak kanpo, dagokion aplikazioa edo ordainketa egiten den zergaldia amaitu ondorengo 24 hilabeteetan.*

*d) Entitateak jarduera ikerketa eta garapen edo berrikuntza teknologiko gisa kalifikatzeko txosten arrazoitu bat edo jarduera horiei dagozkien gastuak eta inbertsioak baloratzeko aurretiazko akordio bat lortzea, Lege honen 35. artikulua 4. apartatuan ezarritako moduan.*

*Betekizun horietako edozein betetzen ez bada, bidegabe aplikatu edo ordaindutako kopuruak erregularizatu beharko dira, Lege honen 137.3 artikuluan ezarritako moduan. (...)"*.

Bestalde, Sozietateen gaineko Zergaren azaroaren 27ko 27/2014 Legearen (SZL) 39.2 artikulua araberaz:

*2. Hala ere, karga-tasa orokorra, Lege honen 29. artikuluko 1. edo 6. apartatuan aurreikusitako karga aplikatu beharreko entitateen kasuan, Lege honen 35. artikuluko 1. eta 2. apartatuetan aipatutako ikerketa- eta garapen- jardueren eta berrikuntza teknologikoaren ondoriozko kenkariak, aurreko apartatuko azken paragrafoan ezarritako mugatik kanpo geratu ahal izango dira, aukeran, eta haien zenbatekoaren ehuneko 20ko deskontuarekin aplikatu ahal izango dira, apartatu honetan ezarritako moduan.*

*Kuota nahikoa ez bada, Zerga Administrazioari hura ordaintzeko eskatu ahal izango zaio zerga honen aitortzearen bitartez, hurrengo a) letran aipatutako epea amaitu ondoren. Ordainketa horrek Tributuen abenduaren 17ko 58/2003 Lege Orokorraren 31. artikuluan eta hura garatzeko araudian xedatutakoari jarraituko dio, eta ez da inolaz ere 31. artikuluko 2. apartatuan aipatzen den berandutze- interesaren sortzapenik gertatuko.*

*Apartatu honetan xedatutakoaren arabera aplikatutako edo ordaindutako kenkariaren zenbatekoak, berrikuntza teknologikoko jardueren kasuan, ezin izango du batera milioi 1 euroko zenbatekoa gainditu urtean. Halaber, apartatu honetan xedatutakoaren arabera, ikerketa eta garapeneko eta berrikuntza teknologikoko jarduerengatik aplikatutako edo ordaindutako*

*kenkariaren zenbatekoak ezin izango du batera, eta kontzeptu guztiengatik, 3 milioi euroko zenbatekoa gainditu urtean. Bi muga horiek sozietate-talde osoari aplikatuko zaizkio, talde bereko entitateen kasuan, Merkataritza Kodearen 42. artikuluan ezarritako irizpideen arabera, kontuan hartu gabe non duten egoitza eta urteko kontu bateratuak egiteko betebeharra.*

*Apartatu honetan xedatutakoa aplikatzeko, baldintza hauek bete beharko dira:*

*a) Gutxienez urtebete igarotzea kenkaria sortu zen zergaldia amaitu zenetik, kenkaria aplikatu gabe.*

*b) Batez besteko plantilla edo, bestela, ikerketa eta garapeneko eta berrikuntza teknologikoko jardueri atxikitako batez besteko plantilla ez murriztea kenkaria sortu zen zergaldiaren amaieratik hurrengo c) letran aipatzen den epea amaitu arte.*

*c) Aplikatu edo ordaindutako kenkariaren zenbateko baliokidea erabiltzea ikerketa eta garapen eta berrikuntza teknologikoko gastuetarako edo jarduera horiei bakarrik atxikitako ibilgetu material edo ibilgetu ukiezineko elementuetan inbertsioak egiteko, higiezinak kanpo, dagokion aplikazioa edo ordainketa egiten den zergaldia amaitu ondorengo 24 hilabeteetan.*

*d) Entitateak jarduera ikerketa eta garapen edo berrikuntza teknologiko gisa kalifikatzeko txosten arrazoitu bat edo jarduera horiei dagozkien gastuak eta inbertsioak baloratzeko aurretiazko akordio bat lortzea, Lege honen 35. artikulua 4. apartatuan ezarritako moduan.*

*Horrez gain, zergaldiko ikerketa- eta garapen-gastuek haren negozio-zifraren zenbateko garbiaren ehuneko 10 gainditzen badute, zergaldi horretan sortu eta Lege honen 35. artikuluko 1. apartatuan aurreikusitako kenkaria aurreko apartatuko azken paragrafoan zehaztutako mugatik kanpo geratu ahal izango da, eta haren zenbatekoaren ehuneko 20ko deskontua aplikatu edo ordaindu ahal izango da aurreko a) letran adierazitako epea igaro ostean aurkezten den lehen aitorpenean, 2 milioi euroko zenbateko gehigarrira arte.*

*Betekizun horietako edozein betetzen ez bada, bidegabe aplikatu edo ordaindutako kopuruak erregularizatu beharko dira, Lege honen 125. 3 artikuluan ezarritako moduan”.*

### **3.- I+G+B kenkariaren alderdi garrantzitsuak.**

SZLren 35. artikulua aukera ematen du kuota osotik ekitaldian egindako I+G+B gastuen ehuneko bat kentzeko.

Kenkariaren oinarriari erreparatuz (hau da, ekitaldian egin diren I+G+B gastuak), SZLren 35. artikuluen 1.b) eta 2.b) apartatuetan adierazten da kenkariaren oinarria murriztu egingo dela jarduera horiek sustatzeko jasotako dirulaguntzen zenbatekoan, zergaldian sarrera gisa egozgarriak badira.

SZLren 39.1 artikulua (SZLren 36-38. artikuluekin batera) ez du uzten I+G+B kenkaria kuota osoaren % 100era irits dadin (murriztuta baitago zergapetze bikoitzagatiko hobarietan eta kenkarietan); aitzitik, % 25eko muga bateratua ezartzen du (baldintza jakin batzuekin igo egin daiteke).

Ekitaldian izandako I+G+B gastuak direla-eta kendu ez diren kopuruen kenkaria ondorengo 18 ekitaldietara eramateko aukera dago.

Hala ere, SZLren 39.2 artikuluan aurreikusitako baldintza batzuk betetzen direnean, zergapekoari aukera ematen zaio kenkaria mugarik gabe aplikatzeko, baina % 20 murriztuta, kuota osoa hutsean utzi arte, eta kuota nahikoa ez izateagatik aplikatu gabeko kopurua itzultzeko eskatu ahal izango du.

**4.-** I+G+B kenkariaren monetizazioa izateko baldintzak ez betetzearen ondorioak.

SZLren 125.3 art.:

*"Salbuespenak, kenkariak edo edozein zerga-pizgarri zerga-oinarrian edo kuota osoan aplikatu ahal izateko, araudi aplikagarrian eskatzen diren baldintzak bete beharko dira.*

*Berariaz besterik ezarri ezean, salbuespena, kenkaria edo zerga-pizgarria aplikatu ondoren hura baliatzeko eskubidea galtzen bada, zergadunak aurreko zergaldietan aplikatutako salbuespenari, kenkariari edo pizgarriari dagokion kuota osoa edo kendutako zenbatekoa ordaindu beharko du betekizunak edo baldintzak betetzen ez diren zergaldiko kuotarekin batera, berandutze-interesez gain".*

**5.-** BFAren jarrera

**5.1.-** BFAren iritziz, I+G+B kenkariaren monetizazioa tributuz kanpoko neurria da, tributu-arau batean txertatua dagoena, eta zerga negatibo moduko bat eratzen du, zerga-sistema subsidioak emateko bide moduan erabiltzea dakarrena.

Horren arabera, dirulaguntzat jotzen du eta, beraz, irizten dio Ekonomia Itunak egituratutako eskumenen banaketatik kanpo geratzen da.

**5.2.-** I+G+B kenkariengatiko monetizazioaren izaera ez-tributarioa justifikatzeko, adierazten du Tributuen abenduaren 17ko 58/2003 Lege Orokorraren (TLO) 31. artikulua adierazten duela tributu bakoitzaren arauditik eratorritako itzulketak soilik direla tributuen araudia aplikatzearen ondorioz behar bezala ordaindutako edo jasandako kopuruak, eta berekin dakar berandutze-interesak ordaintzea, ezarritako epean edo, hala badagokio, 6 hilabeteko epean egiten ez direnean.

Horrela, bada, AFAk ulertzen du ezen tributu bakoitzaren arauditik eratorritako itzulketatzat hartzen direla ordainketa zatikatuak, jasandako atxikipenak eta konturako sarrerak, ondorioak, eta abar; hau da, administrazioan tributu jakin baten kontura ordaindutako zenbatekoak itzultzea edo lehengoratzea, baldin eta, azkenean, zergadunak ez badu tributua ordaintzeko betebeharririk, edo zenbateko horiek baino zenbateko txikiagoa ordaindu behar badu.

BFaren iritziz, Auzitegi Gorenaren 2012ko abenduaren 17ko Epaiaren babespean (2155/2011 errekurtsua, ECLI:ES:TS:2012:8527), tributu-arauditik eratorritako itzulketek, kalifikazio hori izateko, une horretan zor diren baina zergateknikaren ondorioz bidegabe bihurtzen diren kopuruak ordaintzea eskatzen dute.

Epai hori eman zen bereizteko *diru-sarrera bidegabeen itzulketak* eta *tributu bakoitzaren arauditik eratorritako itzulketak*; horien artean, zor diren diru-sarreretatik eratorritakoak sartzen dira, tributua aplikatzearen ondorioz bidegabeak direnak (zehazki, egiaztapen baten ondorioz). Testuinguru horretan, uste du tributuen arauditik eratorritako itzulketen helburua dela tributu bakoitzaren araudiaren ondorioz ordaindutako edo jasandako kopuruak itzultzea.

Jakina, eztabaidaren norainokoa eta aztertutako aldiak zehazten dute ebazpenaren sinpletasuna.

**5.3.-** BFAREN arabera, kuota nahikoa ez denean soilik da bidezkoa monetizazioa; beraz, eskaera egiten den unean gastu publikoaren izaerara aldatzen da.

Haren iritziz, kenkariaren monetizazioak dirulaguntza izatea dakarten ezaugarri guztiak betetzen ditu, Dirulaguntzen azaroaren 17ko 8/2003 Lege Orokorraren 2. artikulua arabera.

BFAK adierazten du, Auzitegi Gorenaren 2017ko uztailaren 13ko Epaiaren arabera (1351/2016 errekurtoa, ECLI:ES:2017:2978) zerga-onuren helburua zergapekoaren kostuak aurreztekoa dela; beraz, inola ere ezin du izan administrazio batek dirulaguntza bat balitz bezala egiten duen ordainketari buruzkoa izan.

Egiaz ez du hori esaten, baizik eta aparteko interes publikoko gertakari baten publizitateagatik zerga-onurak kostuak aurreztu nahi dizkiola Administrazioari.

**5.4.-** BFAK azaldu du tributu-arauetan badaudela tributuz kanpoko neurrien beste kasu batzuk, hala nola zerga geroratuen aktiboak zerga-administrazioaren aurrean kreditu galdagarri bihurtzeagatik ordaindu beharreko ondare-prestazioa.

**5.5.-** Halaber dio oso garrantzitsua dela Sozietateen gaineko Zergaren autolikidaziorako 200 eta 220 erduetan bereizita agertzen dela kuota diferentzialaren itzulketa kenkariaren monetizazioaren itzulketatik, eta hortik ondorioztatzen da izaera desberdineko kontzeptuak direla.

**5.6.-** Haren iritziz, monetizazioaren ordainketa ez dago sartuta TLOren 8.d) artikuluan jasotako zerga-onuretan.

**5.7.-** BFAk dio ezen, Ekonomia Itunaren 18. artikulua arabera, foru-aldundiek dagozkien itzulketak soilik egin behar dituztela, lurralde bakoitzean egindako eragiketen zenbatekoaren arabera.

Alde horretatik, AFAk zehazten du Sozietateen gaineko Zergaren itzulketak SZLren 127. artikuluan araututa daudela, hau da, *zerga honen atxikipenen, konturako sarreren eta ordainketa zatikatuen batura autolikidaziotik ateratzen den kuotaren zenbatekoa baino handiagoa denean, Administrazioak (...) kuota horren gaineko soberakina itzuliko du ofizioz.*

Horren arabera, BFAk ulertzen du, monetizazioaren ordainketa ez denez aurretiazko diru-sarrera batetik eratortzen, ezin dela ulertu, Ekonomia Itunaren arabera, bere gain hartu beharreko itzulketaren barruan dagoenik.

**6.-** ZAEAREN jarrera.

**6.1.-** ZAEAREN iritziz, Ekonomia Ituneko lotura-puntuen arabera, BFAk Sozietateen gaineko Zergaren Estatuko Legea aplikatzea besterik ez du, eta Konstituzio Auzitegira jo beharko du, baldin eta bere ustez lege horrek tributuz kanpoko neurri bat jasotzen badu (dirulaguntza bat ezartzea), zeinak bere zerga-eta finantza-arloko autonomia edo lege ezarritako ondare-oreka urratzen baitu.

**6.2.-** *Kalifikazioaren* helburua da egitateak, egintzak edo negozioak beren benetako tributu-izaeraren arabera egokitzea.

BFAk ezin du Estatuko lege bat modu abstraktuan kalifikatu haren edukia zerga-onura edo dirulaguntza gisa definitzeko.

**6.3.-** ZAEAREN iritziz, I+G+B kenkariaren monetizazioa ez da dirulaguntza bat.

TLOren 31.1 artikulua adierazten du Administrazioak itzuliko dituela tributu bakoitzaren araudian aurreikusitakoaren arabera bidezkoak diren kopuruak; beraz, erreferentzia horretan erabat txertatuta geratzen da Sozietateen gaineko Zergaren araudian araututa dagoen I+G+B kenkariaren monetizazioa.

TLOk ez du ezartzen zerga-onuren *numerus clausus*ik, 8.d) artikulua baitio legez arautuko dela honako hau: "*Salbuespenak, murrizketak, hobariak, kenkariak eta gainerako onura edo pizgarri fiskalak ezarri, aldatu, ezabatu eta luzatzea*".

Konstituzioaren 134.2 artikulua eta Aurrekontuen Lege Orokorren azaroaren 26ko 47/2003 Legearen 33.2 artikulua behartzen dute aurrekontu orokorretan jasota uztera Estatuaren tributuei eragiten dieten zerga-onuren zenbatekoa. Ildo horretan, ondo jasota dago I+G+B kenkariaren monetizazioaren gutxi gorabeherako zenbatekoa.

Kenkariaren monetizazioaren hainbat alderdik nabarmen bereizten dute dirulaguntza batetik, batez ere, zenbatekoaren % 20 baliatzeko ezintasunak eta jasotako kopuruengatik zergarik ez ordaintzeak.

I+G+B gastuengatiko kenkariaren helburua I+G+B jardueretan gastu/inbertsio enpresarialak sustatzea da, TLOren 2.1 artikuluan xedatutakoaren arabera. Artikulu horretan adierazten da tributuek politika ekonomiko orokorreko tresna gisa balio dezaketela.

Kenkariaren monetizazioak aukera ematen du sortutako eta aplikatu gabeko kenkariaren zati bat dirutan berreskuratzeko, hau da, kenkari baten aurrerapen hutsa da, eta horretarako eskubidea dago.

**6.4.-** Oro har, onartua dago zerga-onurak zeharkako dirulaguntzatat har daitezkeela, eta horrek aukera emango luke Estatuak ez onartzeko Sozietateen gaineko Zergaren Foru Arauaren 62. artikulutik 64. bisera artekoetan jasotako kenkariak, foru araudiaren arabera proportzioan zergak ordaintzen dituzten zergapekoengatik aplikatutakoak.

#### **7.- I+G+B kenkariaren monetizazioa kontuan hartzea**

EBZk diru-politika onartu zuenetik, Espainiako Estatuak duen politika ekonomikorako tresna nagusia zerga-politika da.

Hori, batez ere, zerga-oinarriari egindako murrizketen eta kuota osoaren kenkarien bidez egituratzen da (beste xede batzuk ere izan ditzakete, hala nola zergapetze bikoitza saihesteko zerga-teknika).

Sozietateen gaineko Zergaren esparruan, I+G+B kenkaria zerga-onura baten adibide argia da, I+G+Bn inbertitzea sustatu nahi baitu.

Sozietateen gaineko Zergaren konfigurazio tradizionalan ez da jasotzen kuota osoa edo kuota likidoa negatiboak izateko aukerarik, 0 izan daiteke, gehienez ere; hortaz, zergapekoak jasandako konturako ordainketen itzulketa bakarrik lortuko du, hau da, egindako ordainketa zatikatuak eta jasandako atxikipenak eta konturako sarrerak.

Hala, zerga-oinarri negatiboak eta aplikatu gabeko kuota-kenkariak hurrengo urteetara eramaten dira.

Aplikatu gabeko kenkariengatiko kreditu fiskalek etorkizunean kuota likido txikiagoak eta, ondorioz, diru-sarrera txikiagoak ekarriko dituzte (jasandako

konturako ordainketen konpentsazioa handiagoa delako) edo jasandako konturako ordainketen itzulketa handiagoak.

Hau da, kenkarien eta jasandako konturako ordainketen artean erlazio zehatz eta eztaba daezina dago, eta, beraz, ez dago zalantzarik aplikatu gabeko kuota-kenkariak tributu-izaerako kreditu fiskalak direla.

Estatuko legegileak kuota osoa gainditzen duen zatian I+G+B kuotaren kenkaria monetizatzeke aukera ematen duenean, ez du kenkariaren izaera aldatzen; izan ere, kenkaria aplikatu izan balitz bezala azkentzea dakar berekin, eta, beraz, ezin izango da etorkizunean aplikatu, eta horrek ondorengo ekitaldiren batean diru-sarrera handiagoa edo zerga-itzulketa txikiagoa ekarriko du.

Hortaz, neurriak kreditu fiskal bat aldeztatik baliatzeko aukera ematen du, zergaren geroratzea zehazten duten hainbat neurritan bezalaxe.

Orain jakin ezin daitekeen arren, baldin eta inoiz ez balitz sortuko kuota positibo nahikoa I+G+B gastuengatikoen kenkaria deskontatu ahal izateko, horrek ez luke dirulaguntzaren izaerara aldatuko; era berean, ez litzateke aldatuko gainerako onura fiskalak (beste hobari eta kenkari batzuk) galtzearen ondoriozko kreditu fiskalaren izaera, etorkizunean kuota nahikoa ez izatearen ondorioz.

Gainera, nolana ere, dirulaguntza bilakatuko litzateke, baldin eta, I+G+B kenkaria konpentsatzeko 18 urteko epea igarotakoan, egiaztatzen bada ez dela behar adina kuota oso sortu, monetizatutako kenkaria deskontatu ahal izateko.

Kreditu fiskala gozatzeko aurrerakinak penalizazio bat dakar: konpentsatu daitekeen zenbatekoaren % 20ari uko egitea.

Kreditu fiskala I+G+B gastuak egiten diren ekitaldian sortzen bada ere, kuota nahikoa ez dagoenean etorkizunean konpentsatzeak ez dakar inoiz interesik sortzea. Are gutxiago kreditu fiskala borondatez aldeztu aurretik gozatzen bada.

Kenkaria monetizatzeak aukera egiteko, baldintza batzuk bete behar dira. Baldintza horiek, aldi baterako, aukera egiten den zergaldia amaitu eta 24 hilabetera iristen dira (zergaldi hori, gutxienez, gastua egin zen ekitaldiaren ondorengo da). Baldintza horiek betetzen ez badira, bidegabe jasotako zenbatekoa ordaindu beharko da, dagozkion berandutze-interesekin batera. Itzulketari aplikatu beharreko tributazio-proporzioa monetizazioaren urteari dagokiona izango da, ez baita ez-betetzearen urteko kuota osoaren parte, baizik eta harekin batera sartutakoa.

Hala, inkongruentzia litzateke foru-aldundiak bere monetizazio-proporzioa ordaintzeko betebeharririk izan nahi ez izatea, baina, haren aplikazioa baldintzatzen duten baldintzak betetzen ez badira, dagokion zenbatekoa kobratzeko eskubidea izatea, SZLren 125.3 artikulua araberakoa.

Azkenik, monetizazioa dirulaguntza bat bada, diru-sarrera konputagarria izango litzateke ordainketa jasotzen den zerga-oinarria.

Inguruabar hori ez gertatzeaz gain, monetizazioaren eta dirulaguntzen arteko aldea kenkaria sortzen duen gastua sortu zenetik islatzen da, eta hori bateraezina da dirulaguntzak jasotzearekin, SZLren 35. artikuluan xedatutakoaren araberakoa.

## **8.- Prozedurak metatzea**

Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 57. artikulua Ekonomia Itunaren Arbitraje Batzordearen

Erregelamenduaren 8. artikulua egindako igorpenari jarraiki aplikatzen da, eta hauex dio:

*Prozedura hasten edo izapidetzen duen administrazio-organoak, prozedura hasteko modua edozein dela ere, erabaki dezake, ofizioz edo alderdi batek eskaturik, prozedura hori metatzea oinarri bera edo lotura estua duten beste batzuekin, organo berak izapidetu eta ebatzi behar badu prozedura.*

Metatzeko erabakiaren aurka ezin da errekurtsorik aurkeztu.

Horiek horrela, Arbitraje Batzordeak honako hau

## **ERABAKITZEN DU**

1.- Adieraztea BFAk eskumena duela zergapekoaren 2017. eta 2018. urteetako I+G+B gastuengatikoen kenkariaren monetizazioaren proportzioa itzultzeko.

2.- Erabaki hau jakinaraztea Zerga Administrazioako Estatuko Agentziari, Bizkaiko Foru Aldundiari eta CILSAri.